Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1404

AGINDUA, 2009ko abenduaren 29koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Btek Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertu dugu Zamudioko (Bizkaia) «Btek Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskaeraren espedientea, ondorengoetan oinarrituta:

AURREKARIAK

1.– Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia SAk (Julián Andrés Sánchez Alegría jauna ordezkari duela), Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, Agrupación Europea de Interés Económicok (Joseba Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna eta Arantza Munduate Basterretxea andrea ordezkari dituela), Elhuyar Fundazioak (Itziar Nogueras Berra andrea ordezkari duela), Fundación Tecnaliak (Joseba Jaureguizar Bilbao jauna ordezkari duela) eta Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial SAk (Mauricio Lazcano Brotons jauna ordezkari duela) «Btek Fundazioa» eratu dute, Andrés María Urrutia Badiola notario jaunaren aurrean 2009ko apirilaren 1ean 445 protokolozenbakiarekin egiletsitako eratze-eskritura publikoaren bidez.

Hainbat gauza zuzentzeko eskatu zitzaion fundazioari 2009ko ekainaren 22an, eta egindakoa argitu eta justifikatzen duen dokumentazioa jaso zen 2009ko uztailaren 30ean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuko 7.b artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, «Btek Fundazioa»ren jardun-esparruan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailak fundazio hori inskribatzearen alde azaldu dira, bere helburuak zilegiak eta interes orokorrekoak direlako.

2.– «Btek Fundazioa»ren helburua Estatuetako 3. artikuluan ezarrita dago:

Btek Fundazioaren xedea da, orokorrean, gizartearen hezkuntza-eskumenak gara daitezen laguntzea, eta, bereziki, gazteen hezkuntza-eskumenak gara daitezen laguntzea, zientzia eta teknologiaren esparruan.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1404

ORDEN de 29 de diciembre de 2009, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Btek Fundazioa».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Btek Fundazioa», de Zamudio (Bizkaia), sobre la base de los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por el Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia, S.A. (representado por D. Julián Andrés Sánchez Alegría), Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Agrupación Europea de Interés Económico (representada por D. Joseba Iñaki Etxezarreta Alberdi y Dª. Arantza Munduate Basterretxea), Elhuyar Fundazioa (representada por Dª. Itziar Nogueras Berra), Fundación Tecnalia (representada por D. Joseba Jaureguizar Bilbao), y la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (representada por D. Mauricio Lazcano Brotons) se ha constituido la Fundación denominada «Btek Fundazioa» mediante Escritura pública de constitución otorgada el 1 de abril de 2009 ante el Notario de Bilbao, D. Andrés María Urrutia Badiola, bajo su número de protocolo 445.

Requerida con fecha 22 de junio de 2009, la subsanación de diversos extremos, se recibe con fecha 30 de julio de 2009, documentación complementaria que aclara y justifica lo actuado.

A efectos del cumplimiento de lo prevenido por el artículo 7.b) del Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, los Departamentos del Gobierno Vasco con competencias en el ámbito sectorial en que desarrolla sus actividades «Btek Fundazioa», se han manifestado de forma favorable a la inscripción de la mencionada Fundación por entender que sus fines son lícitos y de interés general.

2.– El fin fundacional de la denominada «Btek Fundazioa», viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

Btek Fundazioa tiene por objeto contribuir al desarrollo de las competencias educativas de la sociedad, en general, y de la juventud, en particular, en el área de la ciencia y la tecnología.

Xede hori lortzeko, Btek Fundazioak «Teknologia Interpretatzeko Zentroa» sortu eta kudeatuko du, aurretiaz lege bidez ezarritako betekizunak gauzatuta. Zentro horretan, giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko dira erabiltzaileen esku, eta, baliabide horiei esker, egungo teknologiei buruzko informazioa lortu ahal izango da, eta teknologia horiek ezagutu eta erabiltzeko aukera egongo da, esparru desberdinetan, betiere teknologiek eguneroko bizimoduan zernolako eginkizuna betetzen duten azpimarratuta.

Fundazioak honako helburu hauek ditu:

Helburu nagusia.– Zientzia eta teknologiaren zabalkundea erraztea, eskolako umeen artean bereziki, umeok teknologia horiek ezagutu eta erabiltzearen aldeko jarrerak eta jokabideak izan ditzaten, zientzia eta teknologiaren arloko oinarrizko kultura sustatuz.

Zeharkako helburuak.– Hezkuntza-eginkizunarekin bat etorriz, fundazioaren asmoa da zientzia eta teknologiaren arlora erakartzea balio ekintzaileak nahiz ikerketa-balioak, eskola-orientazioa nahiz lanbide-orientazioa; tokiko ikerketa- nahiz berrikuntza-ekimenak bultzatzeaz gain, ikerketa-ekarpen orokorragoetara egokitzeko gaitasuna izatea; eta, orobat, kultura-aniztasunari eta sexuen arteko berdintasunari erreparatzea. Hori guztia, garapen jasangarriko testuinguruaren barruan.

3.– Fundazioaren egoitza, Estatuetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, Zamudion (Bizkaia) egongo da, eta hau izango da: Bizkaiko Teknologi Parkea, Ibaizabal bidea, 101. eraikina.

4.– Hasierako dotazioa berrogeita hamar mila eurokoa da (50.000), eta diru hori jarri dela agiri bidez egiaztatu da fundazioa erregistroan inskribatzeko espedientean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 37.1.c artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz.

Fundazioak justifikatutakoaren arabera, eta Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legeko azken xedapenetako lehenengoa betez aplikatu beharreko lege horretako 12.1 artikuluaren arabera, ondare-dotazioa egokitzat eta nahikotzat jotzen da fundazioaren helburuak betetzeko.

5.– Fundazioa gobernatzea, administratzea eta ordezkatzea Patronatuari utzi zaizkio. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren Estatutuetako 9. eta 13. artikuluetan jartzen duen moduan.

6.– Ondorengo hauek osatuko dute hasierako Patronatua, fundazioaren eratze-eskrituran ezartzen den moduan:

Para la consecución de este fin, Btek Fundazioa creará y gestionará, previo cumplimiento de los requisitos legales establecidos, un «Centro de Interpretación de la Tecnología» en el que se pondrá a disposición de los usuarios recursos humanos y materiales que permitan el acceso a la información, el conocimiento y la utilización de las tecnologías actuales en los diferentes ámbitos, destacando el papel que éstas tienen en nuestra vida cotidiana.

La Fundación tiene los siguientes objetivos:

Objetivo general.– Facilitar la divulgación de la ciencia y la tecnología especialmente en la población escolar, para la consecución de actitudes y comportamientos favorables hacia el conocimiento y uso de aquéllas, fomentando una cultura científico-tecnológica de base.

Objetivos transversales.– En coherencia con su labor educativa, la Fundación pretende potenciar los valores emprendedores y de investigación, la orientación escolar y profesional hacia el ámbito de la Ciencia y la Tecnología, la conjugación de la iniciativa investigadora e innovadora locales con la capacidad de adaptación a las aportaciones investigadoras más globales, y la atención a la diversidad cultural de igualdad de género. Todo ello en un contexto de desarrollo sostenible.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en Zamudio (Bizkaia), Parque Tecnológico de Bizkaia, Ibaizabal bidea, Edificio 101.

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de cincuenta mil euros (50.000), cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de conformidad con lo justificado por la Fundación y en todo caso, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con los artículos 9 y 13 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional estará integrado por:

Kargua *Cargo*		Iraupena *Duración*
Lehendakaria *Presidente*	Julián Andrés Sánchez Alegría jn.	– Patronatukide gisa: 2013/04/01 arte – Lehendakari gisa: 2011/04/01 arte
Idazkaria *Secretario*	Joseba Iñaki Etxezarreta Alberdi jn.	2013/04/01 arte
Kidea *Vocal*	Francisco Javier Ouro Arruza jn.	2013/04/01 arte
Kidea *Vocal*	Arantza Munduate Basterretxea and.	2013/04/01 arte
Kidea *Vocal*	Itziar Nogueras Berra and.	2013/04/01 arte
Kidea *Vocal*	José María Rodríguez Ibabe jn.	2013/04/01 arte
Kidea *Vocal*	Fundación Tecnalia, Cristina Alberdi Ugalde andrea ordezkari duela	2013/04/01 arte
Kidea *Vocal*	Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial SA, Mauricio Lazcano Brotons jauna ordezkari duela	2013/04/01 arte

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluaren arabera onartu ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 40. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 4. artikuluan eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan agindutakoaren arabera.

Bigarrena.– Eskumena daukan pertsona batek abiarazi du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 36. artikuluan eta ondorengoetan agindutako baldintzak bete dira.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el articulo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y siguientes del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Adierazitako aginduak eta oro har aplikatu beharreko gainontzeko arauak ikusita, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak hauxe

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Zamudioko (Bizkaia) «Btek Fundazioa» eta Patronatuaren hasierako osaera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan gaurko datarekin eta F-256 zenbakiarekin inskribatzeko agintzea. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek espresuki onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori bere helburuekin bat datorren Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 1. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 2.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea bukatzen du. Aurka egiteko, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 29a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general y pertinente aplicación, la Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-256, de la constitución de la denominada «Btek Fundazioa», de Zamudio (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 1ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 2.2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que aprueba el Reglamento de Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de diciembre de 2009.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.